



Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaldiaren XXIII. Astea Hizkuntza erabileraren neurketa

1. SARRERA.....	2
2. METODOLOGIA	3
3. AHOZKO ERABILERA.....	4
3.1. Filmak.....	4
3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak.....	5
3.3. Ekitaldi nagusiak	6
3.4. Aurkezpen prentsaurrekoak	6
3.5. Filmeen prentsaurrekoak	7
3.6. Balorazio prentsaurrekoa.....	7
3.7. Jendaurreko zerbitzuak	8
4. IDATZIZKO MATERIALA	9
4.1. Katalogo ofiziala	9
4.2. Programazio liburuxka.....	9
4.3. Euskaraz eskeintzen diren filmen programazio liburuxka	9
4.4. Programazio taula... ..	9
4.5. Eskuorriak, sarrerak, postalak,.....	10
4.6. WEB gunea	11
4.7. Sare sozialak	11
4.8. Prentsarako materiala	11
4.9. Errotulazioa	12
4.10. Argitalpenak	12
5. ERAKUSKETA ETA ANTZERKIAK	12
5.1. Erakusketak.....	12
6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK.....	13

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, Donostiako aisialdian eragina duten ekintza nagusietan hizkuntza erabileraren neurketa egin ohi du: dFeria, Giza Eskubideen Zinemaldian, Aste Nagusian, Jazzaldian eta Zinemaldian hain zuzen. Hori dela eta, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Asteazken urte hauetan bezala, aurten ere behaketa egin dugu.

Garrantzitsua da oso euskararen erabilera normalizatzea eguneroko jardunean. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskaren presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Ostera ere, gogorarazi behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomi Erkidegoan eta, halaber, Donostiako udal ordenantzek euskarari ofizialtasun hau aitortzeaz gain, Udalak antolatutako ekintza guztietan lehentasuna izan behar duela esaten dutela.

Beraz, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Asteazken antolatzen diren jardueretan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu Bagerak; hau da, Beldurrezko eta Fantasiazko Zinemaren Asteazken euskararen presentzia normalizatzea.

2. METODOLOGIA

Azkeneko urte hauetan, 2002tik, urtez urte egin du BAGERA Elkartek Zinema Astearen neurketa eta, beraz, datu guztiak aurrean izan ditugu neurketa egin eta ondorioak ateratzerakoan. Asteak bere gain hartzen dituen momentu guztiak neurtzen saiatu gara: filmen aurkezpenak, prentsaurrekoak, programazio aurrerapenaren txostena, filmez filmeko gida, kartelak etab. neurtu ditugu besteak beste.

Behaketa aurrera eramateko orduan, bagerakideen laguntza ezinbestekoa izan da, halere, elkartetik kanpoko kolaboratzaileak ere izan ditugu behaketa aurrera eramateko orduan.

Neurketa egiterakoan, hizkuntza erabilera 3 atal desberdinetan azaldu dugu eta kasu guztietan ele bitan egin zela adierazten dugunean, zehazki, euskaraz eta gazteleraz egin zela esan nahi dugu:

a) Ahozko erabilera: Filmak, ekitaldi nagusiak, prentsaurrekoak, film emanaldietako sarrerek eta aurkezpenak (sarerek, ongi etorriko lehen hitzak bezala eta aurkezpena pelikulen xehetasunak ematerakoan) eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan erabiltzen den hartzen dugu kontuan.

b) Idatzizko materiala: Idatzizko material ugari izaten da Astearen. Antolakuntzaren argitalpenak (filmez filmeko gida, programazioaren aurrerapen txostena...), kartelak, web gunea, errotulazioak etab. izaten ditugu aztergai.

c) Erakusketak: Atal honetan Astearen baitan antolatzen diren erakusketetan egiten den hizkuntza erabilera neurtzen dugu.

3. AHOZKO ERABILERA

3.1. Filmak


Atal hau Zinema Astearen ekintzarik garrantzitsuena dela gogoan izan behar dugu. Aurten, asteak 36 film luze eman ditu, eta horietatik, 11k azpтитulua euskaraz izan dute eta 1 euskarara bikoiztua izan da (%33,33). Bestalde, 28 labur eman dira eta horietatik 17 (lehiaketan parte hartutako film laburrak) euskaraz azpidatzita izan dira eta haurren sailean beste bat (guztira %64,29). Emanaldi kopuruei erreparaturaz, 41 film luze izan dira, 11k euskarazko azpтитuluak izan dituzte eta bat euskaraz izan da; beraz, film luzeen emanaldien %29,27 euskaraz izan da. Film laburren emanaldiak 47 izan dira, horietatik 18k euskarazko azpтитulua izan dute, hau da, %38,30a.

Euskaraz eskaintzen diren proiektzioak Victoria Eugenia Antzokian izaten dira eta Asteako programazioa nagusia, berriz, Antzoki Zaharrean (Asteak proiektatzen dituen film guztiak, Inaugurazio eta Amaierako ekitaldiak, lehiaketak ...).

Sailez-sail honakoak izan dira aurten eskaintako filmak eta euskarazko emanaldien kopurua:

- Film luzeen sail ofiziala: 22 filmetatik 5 izan ziren euskaraz azpтитulua zutenak, %22,72a. Emanaldiei dagokionez 27 emanaldietatik, 5ek euskarazko azpтитulua zuten (%18,52a).
- Film laburren sail ofiziala: 17 filmetatik 17ak euskaraz azpidatzita izan dira. Hau da, %100ek euskarazko azpтитulua izan zuten. Guztira 34 emanaldi egon ziren, %50 euskaraz eta beste %50 gazteleraz.
- Film labur espainiarrei dagokienez, film eta emanaldien kopurua berdina izan zen. 9 emanaldietatik, bakarra ere ez euskaraz.
- Phenomena on Tour sailean emanaldi eta filmen kopurua ere berdina izan zen. 2 emanaldietatik, 2ak gazteleraz.
- Haurrentzako zinema: Film luze bat eta beste bat laburra izan ziren, biak euskaraz bikoiztuak.
- Aurten ezusteko filma gazteleraz izan zen (John Dies At the end): Ingeleseztan eta gazteleraz azpidatzia.
- Universal & Victoria Eugenia Antzokia 100 urte sailean 6 filma proiektatu ziren eta guztiak euskaraz azpidatziak izan ziren.

- Drakula zikloan 3 filma proiektatu ziren Okendo Kultur etxean. 3ak jatorrizko bertsioan izan ziren gazteleraz azpidatziak.



3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak

Ongi etorri eta aurkezpenak aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu ekitaldi batzuk film bat baino gehiagoren emanaldia direla (normalean, laburren bat lehenengo eta luze bat edo gehiago ondoren), eta gehienetan ekitaldi osoak aurkezpen bat izan ohi duela eta ondoren filmeko zuzendariak hitz egiten duela.

BAGERAK behatutako filmetatik, 16k izan dute aurkezpena. Aurtengo Zinema Astea, euskara ia aurkezpen guztietan erabili bada ere, aurkezpen gehienetan oso urria izan da. Hona hemen jasotako datuak ehunekotan (%):

Filma	Euskaraz	Gazteleraz	Ingeleseaz	Frantsesez	Guztira
Foxes	%30	%55	%15	%00	%100
Amazing Mask	%20	%80	%00	%00	%100
The ABCS Of Death	%15	%55	%30	%00	%100
Cockney Vs Zombies	%40	%30	%30	%00	%100
Tarnished	%40	%30	%30	%00	%100
Alien Repair Guy	%01	%99	%00	%00	%100
Resolution	%04	%89	%03	%04	%100
Trunk	%15	%15	%70	%00	%100
Film labur Espainia	%10	%90	%00	%00	%100
Nostagic Z	%00	%100	%00	%00	%100
Banana Motherfucker	%10	%90	%00	%00	%100
Sawney. Flesh of Man	%15	%70	%15	%00	%100
Insensibles	%00	%100	%00	%00	%100
Morgue Street	%00	%70	%30	%00	%100
Serie B	%29	%69	%02	%00	%100
Bukaera ekitaldia	%25	%75	%00	%00	%100
GUZTIRA	%15,88	%69,81	%14,06	%0,25	%100

Euskaraz edo gazteleraz ez den beste hizkuntzaren bat erabili denean itzulpena gaztelerara izan da.

Bestetik, Alien Repair Guy filmaren aurretik lehiaketa bat egin zuten. Aurkezleak dena gazteleraz egin zuen baita 5 lehiakideek ere.

Halloween gauean egin zuten mozorro lehiaketan sarrera ele bitan izan bazen ere ondoren lehiaketa osoa gaztelera hutsez izan zen.

3.3. Ekitaldi nagusiak

Inaugurazio ekitaldiaren aurkezpena Vanessa Rodriguezek, telebista esatariak egin zuen. Aurkezleak sarrera ele bitan egin bazuen ere (euskaraz zein gazteleraz maila berean erabiliz) ondoren, gaztelera erabili zuen gehien bat. Oltzara igo ziren gonbidatuek Josemi Beltranek, "Drakulak", Leticia Dolerak eta Borja Crespok (epaimahaikideak) gazteleraz egin zuten eta Srdjan Spasojevucek hitz batzuk ingelesez. Bukaeran agurrean ere gaztelera gailendu zen nabarmen.

Itxiera ekitaldian ere, euskararen presentzia oso urria izan zen. Lehenengo Josemi Beltranek eta Vanessa Rodriguezek eman zioten hasiera ekitaldiari ele bitan. Ondoren, sarien banaketak Alaskak eta Mario Vaquerizok egin zituzten gazteleraz.

3.4. Aurkezpen prentsaurrekoak

Atal honetan, Zinema Asteko ekimen ezberdinak aurkezteko egin diren prentsaurrekoak hartu ditugu kontuan.

Uztailaren 6an Astearen **kartel ofiziala** aurkeztu zen Victoria Eugenia. Horretaz gain, Astearen aurrerapen bat eta hainbat eduki aurkeztu zituzten. Kartelaren aurkezpena gaztelera hutsez izan zen. Beltranek (Astearen zuzendariak) eta Mario Vaquerizo kartelaren protagonistak gaztelera hutsez aritu ziren. Ondoren, Beltranek Astearen aurrerapena eta zenbait eduki bi eletan egin zituen. Euskara eta gaztelera tartekatuz. Hizkuntza bakoitzean informazio ezberdina eman zuen. Jarraian galdera tartea gazteleraz zabaldu zuen. Galderak gazteleraz izan ziren eta agurra ere bai.

Urriaren 10ean, **Nekrogune** izenarekin Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXIII. Astea ospatuko den ekintza-multzoa aurkeztu zen. Bertan, Josemi Beltranek, Ane Rodriguezek (Tabakalerako zuzendaria) eta Jon Sanchezek (Guganeko managerra) parte hartu zuten. Sarrera ele bitan egin zuen Josemi Beltranek. Jarraian Tabakalerako zuzendariak hartu zuen hitza eta bi hizkuntzatan egin zuen (lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz, informazio berdina). Ondoren Nekrogunearen ekimen

ezberdinen berri Beltranek eta Jon Sanchesek eman zituzten. Beltranek, "Nekrobira"-ren eta beste ekimen baten azalpena gazteleraz eta Jon Sanchezek euskaraz. Galdera tartea euskaraz zabaldu zuten. Euskaraz egin zuten galdera euskaraz erantzun zuten. Agurra Beltranek egin zuen gazteleraz.

Urriak 18, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXIII. Asteko **programazio** osoa aurkeztuko zen Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoan. Prentsaurrekoan Nerea Txapartegi (Kultura eta Euskara delegatua), Mikel Mendarte (Kutxa Fundazioa Kultura eta Kirol zuzendaria) eta Josemi Beltrán (Zine Unitateko arduraduna) izan ziren.

Sarrera Nerea Txapartegik egin zuen euskara eta gaztelera tartekatuz. Hizkuntza bakoitzean informazio propioa landu zuen. Ondoren, Kutxako ordezkariak eta Mikel Mendartek berdin egin zuten, hau da, euskara eta gaztelera tartekatu (hizkuntza bakoitzean informazio propioa landuz).

Urriaren 29an, **Banpiroen erregea** (Luis Gasca Artxiboa) **erakusketaren** aurkezpena egin zen Okendo Kultur etxean. Bertan, Luis Gasca, erakusketako komisarioa eta Josemi Beltran (Zinema Asteko zuzendaria) izan ziren. Prentsaurrekoa gaztelera hutsez izan zen Josemi Beltranen hasierako sarrera kenduta, euskaraz egin zuela.

Urriaren 30ean, Victoria Eugenia Antzokian, **Santiago Valenzuelari** eskainitako **erakusketaren** aurkezpena egin zen. Bertan, Josemi Beltran (Zinema Asteko zuzendaria), Santiago Valenzuela (egilea) eta Iñaki G. Holgado (erakusketaren komisarioa) izan ziren. Aurreko prentsaurrekoan bezala euskara sarrerako agurrean erabili zen. Prentsaurrekoa gaztelera hutsez egin zuten.

3.5. Filmetako prentsaurrekoak

Asteazken zehar filmen prentsaurrekoetan Zinema Astearen arduradunak eman zuten hasiera prentsaurrekoei (Josemi Beltran), gehienetan nahiko labur. Orokorrean, euskara hasierako agurrean erabili izan da. Ondoren, gonbidatuaren baitan izan da erabilitako hizkuntza, gehienetan gazteleraz egin dute, eta beste hizkuntzaren bat erabili dutenean itzulpena gaztelerara egin da. Egindako galderak beti gazteleraz izan dira eta erantzunak gazteleraz edota atzerriko hizkuntzan egin dira (itzulpena gazteleraz). Zinema Astearen zuzendariak gonbidatuei egin zizkien galdera guztiak ere gazteleraz izan ziren.

3.6. Balorazio prentsaurrekoa

Aurten ez da Astearen balorazio prentsaurrekorik egin. Balantzea posta elektronikoz jaso dugu prentsa ohar baten bidez, euskaraz.

3.7. Jendaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugun neurtu nahi izan dugu.

Hainbat ekitalditan aretoen sarreretan zeuden langileekin euskaraz hitz egin ahal izan dugu, askotan lehenengo hitza gazteleraz izan den arren.

4. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har Asteko antolakuntzari dagokion idatzizko materiala ele bitan edota hiru eletan idatzirik dago.

4.1. Katalogo Ofiziala

"Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Astea"-ren katalogo ofizialean, astean zehar izango diren film eta bestelako ekintzei buruzko informazioa azaltzen da 102 orritan. Lehenengo orrian, Zinema Astearen egoitzaren helbidearen kalea azaltzen da gazteleraz (Donostia Kultura Victoria Eugenia Antzokia SA. Reina Regente, 8-4º. 20003 Donostia/San Sebastian). Helbide elektronikoa eta web orria ere gazteleraz dute (cinema_cinema@donostia.org eta www.sansebastianhorrorfestival.com). Jarraian babesle eta laguntzaileen logotipoak ageri dira. Ondoren, eskerrak emateko orrialde bat dago, honen beheko aldean Donostia Kulturaren egoitzaren helbidea eta Zinema Asteko lantaldearen fitxa teknikoa gazteleraz daude (organización, coordinación, Dpartamento Invitados y Producción, diseño, tratamiento de imágenes t arte final...). 6. eta 7. Orrialdeetan, epaimahaiari buruzko informazioa dago hiru eletan. Hurrengo orrialdeetan, filmei buruzko informazioa dator hiru eletan eta izenburua jatorrizko hizkuntzan ageri da. Alboan datorren fitxa teknikoa ere hiru hizkuntzetan dago. Gainontzeko ekintzei buruzko informazioa ere hiru eletan dago. Informazioaz gain, hainbat iragarki edo filmen kartelak daude. Filmek kartelak 8 kartel argitaratu dituzte, haurren film-iragarkia euskaraz, 5 gazteleraz eta 2 ingelesez. Honetaz gain, 12 iragarkietatik bakarra euskaraz (Kutxa), 8 gazteleraz eta 3 ingelesez.

4.2. Programazio liburuxka

26 orrialdeko liburuxka bat da. Azalean kartel ofiziala du, hiru eletan eta antolatzaile, babesle eta laguntzaileen izenak ageri dira. Kontrazalean, berriz, "*Sinister*" pelikularen iragarkia gazteleraz. Barnean, film bakoitzaren azalpen labur bat dago, ele bitan, lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz. Testuak bata bestearen itzulpena dira.

4.3. Euskaraz eskaintzen diren filmen programazio liburuxka

Astean zehar euskaraz eskaintzen diren filmetarako 14 orriko programazio liburuxka euskara hutsez dago.

4.4. Programazio taula

Triptiko formatuan, aste osoko programazioa modu grafikoan azaltzen da. Azalean kartel ofiziala dator hiru eletan eta kontrazalean Kutxa gizartearen iragarkia euskaraz. Barruan azaltzen den informazio guztia ele bitan dago.

4.5. Esku orriak, sarrerak, postalak, cd-ak...

Atal honetan Zinema Astearen inguruan sortzen den beste material idatzia biltzen dugu, kontuan izanik hau dela jende gehienarengana iristen den materiala.

- Akreditazio txartela, alde batean zein bestean agertzen den informazioa hiru eletan dago. "Akreditazioa" izena, euskaraz, beste hizkuntzetan baina nabariago idatzia dago (hizki handiagoan eta kolore beltzean).
- Hasierako festarako gonbidapenean informazio gehiena hiru eletan idatzita dago. Gonbidapenaren atzealdean azaltzen den pelikularen iragarkia berriz gazteleraz dago (Siniter filmarena hain zuzen).
- Filmen botoa emateko esku orrian azalpenak hiru eletan daude. Hala ere, neurketa egiteko izenburua gazteleraz da: "*monstruómetro*".
- Erakusketak iragartzen dituzten postalak ele bitan daude.
- Fnacek kaleratzen duen programazio esku orrian, erakusketaren informazioa gazteleraz idatzita dago.



- Antolakuntzak zuzenean sortu ez duen materiala baina Antzoki Zaharrean Zinema Astearen banatutako esku orri asko gazteleraz edo ingelesez jaso ditugu: Hala nola, gazteleraz, imagen death kaleratutako esku orri ezberdinak (*descubre el espectáculo zombi del año, El principio y fin de los tiempos, La raíz del mal, La sonrisa del lobo, do re mi fa zombi*) eta ingelesez, Morgue Street filmaren postala.

4.6. WEB gunea

Aurtengo web gunean, beste urtetan bezala, lehenik hizkuntza aukeratzeko pantaila agertzen da, sartu (euskaraz), entrar (gaztelera) eta enter (ingelesez), aipatutako ordenan. Informazio guztia hiru hizkuntzetan eskuratzeko aukera ematen du. Bestetik, bi hutsune topatu ditugu, bata harremanetarako helbidearen datuak gaztelera dago (Teatro Victoria Eugenia, Reina Regente 8, 4ª), eta bestea, web gunearen behealdean San Sebastian Donostia 2016 logotipoan klikatzerakoan beraien web gunera bideratzen zaitu gaztelera bertsiora.

Nekrogune ekimenak ere web gunea du (www.nekrogune.com) eta informazio guztia gaztelera dago. Euskaraz 3 izen ataletan bakarrik irakurri dezakegu (bost haurra: The game, Nekrobira eta Olerki galduaren bila izenburuetan).

Bost haurrak ekimenak ere beste orri bat du www.traxlan.eu/blog. Orriak euskaraz edo gaztelera irakurtzeko aukera eman arren, informazio gehiena euskarazko bertsioan ez da azaltzen gaztelera dagoelako soilik. Hala nola:

- Egunkariko azken berriak
- Mapan azaltzen diren azalpenak
- 5 amak atalean haurren azalpenak,
- Egunkaria atala hutsik dago ez baitago euskaraz irakurtzeko aukerarik.
- San Telmo Segurtasun sistema atalean, jolasteko azalpenak gaztelera daude.
- Twitterren istorioa jarraitzeko leloa gaztelera: "*Sigue la historia en twitter*".

4.7. Sare sozialak

Sare sozialen kasuan, Zinema Astearen facebookean antolakuntzatik sartutako informazio testu gehienak euskaraz irakurri ahal izan ditugu.

Twitterren berriz, gaztelera informazio gehiago sartu da euskaraz baino.

4.8. Prentsarako materiala

Prentsaurrekoetan banatutako prentsa ohar guztiak euskaraz zein gaztelera zeuden.

Prentsari banatutako cd-an naiz eta karpeten izenak ele bitan egon argazkien izenen batzuk gaztelera hutsez daude (*El rey de los vampiros 1, el rey de los vampiros 2, Juguetería 1, juguetería 2, Juguetería 3, ...*).

Bestetik, posta elektroniko bidez jasotako prentsa oharretan, informazioa euskaraz jaso dugu. Antolakuntzako prentsa arduradunarekin zuzenean izan ditugun mezu trukaketak, euskaraz egin izan ditugu.

4.9. Errotulazioa

Zine aretoetako edota erakusketa tokietako eta bulegoetako ateetan ipinitako ohar edo txartelak ele bitan ikusi ditugu.

4.10. Argitalpenak

Aurten argitalpen bakarra izan da, "2000 maniacos" fanzinea hain zuzen. 82 orrialdeko aldizkaria da eta guztia gazteleraz dago, kontrazala izan ezik; bertan Fantasiazko eta beldurrezko zinemaren asteko kartel ofiziala azaltzen da hiru eletan.

5. ERAKUSKETA

5.1. Erakusketak

Zinema Astearen inguruan egon diren lau erakusketak behatu ditugu:


- "Jostailu-denda" (Santiago Lorenzo) erakusketan kanpoko panela euskaraz (hizki lodiz) eta ondoren gazteleraz zegoen. Erakusketa gelan jarri zuten panel handian ere, informazioa euskaraz eta gazteleraz idatzita zegoen (ezkerreko aldean euskaraz eta eskuinekoan gazteleraz).
- "Euskadi Fantastikoa VIII". Santiago Valenzuelaren erakusketan, erakusketaren inguruko informazio panelak bi eletan zeuden.
- "Banpiroen erregea" erakusketarako sarreran jarritako kartel nagusia ele bitan zegoen (euskarak lehentasuna izanik: hizki lodiz) Erakusketa aretoan jarritako panel nagusiko izenburuan ere, euskarak lehentasuna izan du (hizki handiagoan idatzita). Testua euskaraz ezkerreko aldean eta gazteleraz eskuin aldean. Jarritako beste informazio paneletan eta argazki oinetan ere, elebitasuna mantendu da.
- "Malefic Time-Apocalypse" Luis Royoren marrazkien erakusketan informazio panela euskara hutsez eta argazki oinak aldiz gazteleraz zeuden.

6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.

Ahozkoan eta film luzeetan erabilitako hizkuntzari dagokionean iazko kopuruan mantendu dira euskaraz azpidatzita edota bikoiztutako filmak. Aurten, sail ofizialekoak 5 izan dira euskaraz (iazko kopuru bera), beste 6 film euskaraz azpidatziak Universal & Victoria Eugenia Antzokia 100 urte sailean (iaz Zatoz eta begira zikloan kopuru bera) eta haurrentzako film bakarra euskarazko bertsioan izan da (Iaz bezala). Film laburrei dagokienez ere, sail ofizialean lehiaketan parte hartutako filma guztiak euskaraz azpidatziak izan dira. Film labur espainiarrei dagokienez ez da euskararen presentziarik izan. Phenomena on Tour sailean eta Drakula zikloan proiektatu diren 5 pelikuletatik ez da bakarra ere euskaraz izan.

Aurtengo Beldurrezko eta Fantasiazko Zinema Astean beraz, iazkoarekin alderatua, ez da aldaketa nabarmenik eman. Film laburretan portzentajea zertxobait igotzen da iaz Sail Ofizialean 15 labur proiektatu zirelako eta aurten 2 gehiago izan direlako (kuantitatiboki igo den arren kualitatiboki ez da horrela gertatu).



Zinema Asteko egunez eguneko filmen aurkezpenei dagokienez, aurten aurrerapen txiki bat eman dela ikusi dugu. Aurkezpen gehienetan euskararen presentzia bermatu baita, nahiz eta aurkezpen askotan oso maila baxuan izan den. Behatutako 16 aurkezpenetatik, 13tan hain zuzen. Hala ere, aurkezpen guztien portzentajeak batuta euskara %15,88 erabili

da, ia ingelesaren parera (%14,06) eta hasierako agurretara mugatu da. Gaztelera aurkezpen guztiak kontutan hartuta %69,81a erabili da.

Ekitaldi nagusietan, Inaugurazio eta Amaierako ekitaldietan, hasierako ongi etorri eta sarrera ele bitan egin bada ere, ondoren gaztelera egin da.

Astean zehar bi lehiaketa egin dira: mozorro lehiaketan aurreko ekitaldi eta aurkezpenetan erabilitako eskema bera jarraitu da (aurkezleak sarreran euskaraz erabili badu ere ondoren epaimahaikide, lehiakide zein aurkezlearen arteko elkarrizketak gaztelera izan dira). Filmei buruz nork gehiago jakin egin duten lehiaketa berriz, gaztelera hutsez egin da.

Prentsaurrekoei dagokionez, behatutakoetatik, bi prentsaurrekoetan soilik bermatu da ele bitasuna (programazioaren aurkezpenetan eta Nekrogune ekintza-multzoa aurkezteko prentsaurrekoan). Bestelako prentsaurrekoetan gaztelera gailendu da nabarmen, euskara hasierako agurretara mugatzen baita (Hala nola, kartel ofizialaren aurkezpen prentsaurrekoan, erakusketen aurkezpenetan zein filmetako aurkezpen prentsaurrekoetan). Filmen prentsaurrekoen kasuan gainera, gonbidatuek euskara zein gaztelera ez den beste hizkuntza erabili duenean itzulpena gaztelera egin da beti.

Idatzizko materialari dagokionez, antolakuntzak kaleratzen duen materialean elebitasuna mantentzen da (katalogo ofizialean, programazio liburuxkan, programazio taulan, prentsarako dossierretan, etab ...).

Hala ere, badira zuzendu beharreko batzuk. Hala nola, katalogo ofizialean agertzen diren iragarkietan, (12 iragarkietatik 8 gaztelera dira, 3 ingelesez eta bakarra euskaraz), "*Nekrogune*" eta "*Bost haurrak*" ekimenerako sortutako bi web orrietan (lehenengoan gaztelera hutsez dago informazio guztia eta bigarren web orrian euskaraz klikatzeko aukera eman arren informazio gehiena eskuratzeko gaztelera orrira joan behar da euskaraz ez baitago), eta azkenik, antolakuntzatik kanpo baina Zinema Astean banatzen den beste material idatzian (jasotako esku orri gehienak gaztelera hutsez jaso ditugu).

Erakusketei dagokienez, erakusketen kanpoko pankarta handietan zein barruko informazio panel eta argazki oinetan elebitasuna bermatu da. Hutsune bakarra, Fnac-ek kaleratzen duen hilabeteko programazioarekin kaleratzen duten esku orrian eta erakusketaren argazki oinetan topatu dugu.

Laburbilduz, idatzizko materialean elebitasuna mantentzen den arren, sortzen diren ekimen berrietan ez da horrela gertatzen, esaterako, web orri berrietan. Ahozko erabileran, berriz, hutsuneak handiak direla deritzogu, hala nola, Antzoki Zaharreko aurkezpenetan, ekitaldietan,

lehiaketetan zein prentsaurrekoetan. Gehienetan euskara ongi etorri eta sarrerara mugatzen baita.

Filmei dagokionez, alde batetik, Astean zehar euskaraz azpidatzita proiektatzen diren filma kopurua ez dela nahikoa deritzogu (%38,23a) eta bestetik, BAGERA Elkarteak uste du, badela garaia, euskara Zinema Astearen barruan normaltasunez Antzoki Zaharreko emanaldietan ere erabiltzea eta ez bakarrik, Victoria Eugenia antzokiko euskaldunontzako aparteko emanaldietarako.

Beraz, BAGERAK ondokoa proposatzen dio Zinema Asteko antolakuntzari: dauden hutsuneak zuzendu ditzala eta Antzoki Zaharrean euskararen presentzia bermatzea Zinema Astean euskararen normalizazioa lortzeari begira. Antolakuntzak badaki, bide horretan BAGERAren laguntza behar izanez gero, beti prest izango gaituela.



Katalina Eleizegi, 36 behea
20009 Donostia
Tel:943467181
bagera@bagera.net